

HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburu nagusietako bat hondakinak ahalik eta gehien murriztea da. Hori dela eta hondakinak gutxitu, berrerabili, birziklatu edo beste erabilera batzuk emateko bideak jarriko dira. Horretarako herritarren parte-hartzea bultzatuko da, bai etxeko hondakinak sortu eta biltzeari dagokionez, bai gerora birziklatu daitezkeenak gaika jasotzeari dagokionez. Honela denon artean zerbitzuaren kudeaketa egokia, ona eta eraginkorra lortu nahi dugu.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea hau da: Udal eskumenen barruan, Zarauzko udalerrian sortutako hiri-hondakinen erregimen juridikoa arautzea, produkzioaren, edukitzearen, ematearen eta kudeaketaren aldetik. Hondakin horiek ez dute hondakin arriskutsuen kalifikaziorik izango.

Ordenantza hau zerbitzua erabiltzen dutenentzako derrigorrez bete beharrekoa izango da eta Udalaren (honek zabor-bilketaren zerbitzua bere gain hartu du) eta erabiltzaileen arteko harremanak arautzen ditu. Bi aldeek dituzten eskubide, betebehar eta obligazioak zehazten ditu.

2. artikulua. Definizioak

Hiri-hondakinak edo udal-hondakinak (HH) honako hauek dira: etxebizitza partikularretan sortutako hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak, baita arriskutsutzat sailkatu ez direnak ere, baina izaera edo konposaketa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin asimilagarriak direnak.

Horiez gain, hiri-hondakintzat hartuko dira jarraian aipatuko diren hauek ere:

- Bide publiko, berdegune, aisialdirako zona eta hondartzak garbitzetik sortzen diren hondakinak.
- Hildako etxeko animaliak, baita bertan behera utzitako altzariak, tresnak eta ibilgailuak ere.
- Eraikuntzako lan txikietatik eta etxeetako konponketetatik sortzen diren hondakinak eta obra-hondakinak; gehienez eguneko 15 kg.

Hiri-hondakinak (HH) talde hauetan sailkatzen dira:

- a) Etxebizitzetako hondakinak (EH): etxebizitza partikularretan sortutakoak, altzariak, hondakin elektrikoak (etxetresna elektrikoak), arriskutsuak eta txatarra izan ezik.
- b) Dendek, bulegoek, zerbitzuek, industria jarduerak, garbiketak sortutako hondakinak, hildako etxeko animaliak eta bertan behera utzitako ibilgailuak, eta Dendetatik, Industrietatik eta Erakundeetatik datozen Hondakin Asimilagarriak (DIEHA).
- c) Eraikuntzako lan txikietatik eta etxeetako konponketetatik sortzen diren hondakinak eta obra-hondakinak, Eraikuntza eta Eraispenteko Hondakinak (EEH).

3. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza hau Zarauzko udalerrian aplikatzekoa da.

4. artikulua. Administrazio eskuduna

Zarauzko Udalarari dagokio hiri-hondakinak kudeatzea eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI eskuordetzan eman diezaioke zerbitzu osoa edo horren zati bat, interes orokorraren izenean edo zerbitzua hobetzeraren.

5. artikulua. Erabiltzaileak

Zerbitzu hauen onuradunak edo zerbitzuaren eraginpeko pertsona fisiko eta juridiko guztiak dira erabiltzaile.

6. artikulua. Aplika daitekeen araudia

Ordenantza honek arautzen ez dituen alderdi guztietan ondorengo xedapen hauetan aurreikustiakoa izango da kontuan:

- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorra;
- 10/1998 LEGEA, apirilaren 21ekoa, hondakinei buruzkoa; 11/1997 LEGEA, apirilaren 24koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuak garatutakoa.
- 833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, maiatzaren 14ko Hondakin Toxikoen eta Arriskutsuen oinarrizko 20/1986 Legeak (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuak aldatutakoa) zioena garatzeko araudia onartu zuena.
- 1383/2002 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, balio-bizitzaren amaierako ibilgailuen kudeaketari buruzkoa.
- Barne Ministerioaren 249/2004 Agindua, balio-bizitzaren amaieran deskontaminatutako ibilgailuen baja arautzen duena.
- 423/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituena.
- 1995eko otsailaren 15eko Agindua, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuarena.
- eta ingurumenari buruzko gainerako legeak.

II. TITULUA

BILKETA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ETXEKO ZABOR-BILKETA

7. artikulua. Etxeko zabor-bilketaren xedea

Ordenantza honen ondorioetarako honako materia hauek izango dute etxeko hondakin izaera (EH):

- Etxeko jaki eta kontsumogaien detritus eta zaborrak, baxera edo kristal hondakinak, ontziki txikiak, enbalajeak, kartoiak, arropa eta oinetakoak eta orokorrean etxean normalean sortzen diren edonolako hondakinak. Finkatutako ordutegi eta lekuetan biltzeko utziko dira, plastikozko poltsa egokietan eta behar bezala itxita, haustura, euri, aske dabiltsan animalia eta abarren eraginez barruan jasota dagoena ez ateratzeko moduan.

Era berean, EH izaera izango dute aurreko atalean deskribatutako hondakinen antzekoek, baina denda, zerbitzu, jangela, eskola, eraikin publiko, kale garbiketa, azoka, festa publiko eta abarretan sortutakoek. Hauek ere aipatutako atalean adierazitako modu berean utzi beharko dira, ordenantza honetako 19tik 25era bitarteko artikuluetan ezarritakoa izan ezik.

Honakoak ez dira etxeko hondakintzat (EH) edo antzekotzat hartuko:

- Bere ezaugarri bereziengatik, bolumena, pisua eta abarreatatik, biltzea, garraiatzea, baloratzea edo ezabatzea eragotziko duen hondakina. Hondakin hauek behar bezala utziko dira zerbitzua kudeatzen duen organoak adierazitako lekuan.
- Edonolako pneumatikoak, pneumatiko-estalkiak, bateriak, metagailuak, industria prozesuetan sortutako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, hondarrak eta errautsak, koipeak, zumitzak, txirbilak, produktu korrosibo edo toxikoak dituzten edo izan dituzten bidoiak.
- Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Legearen eranskinean jasotako kutsatzaileraren bat duten hondakinak. Hondakin hauek lege honek dionenaren arabera kudeatuko dira.

8. artikulua. Bilketa zerbitzuaren salbuespenak

Honako hauek etxeko hondakinak biltzeko zerbitzutik kanpo gelditzen dira arriskutsuak direlako (eta beraz, ez da horiek jaso beharrik izango):

1. Gaika bildutako honako elementuak:

- Pinturak, tindagaiak, erretxina eta kolak.
- Disolbatzaileak.
- Produktu kimiko fotografikoak.
- Pestizidak.
- Deskarga-lanparak, hodi fluoreszenteak eta merkurioa daukaten bestelako hondakinak.

2. Honelako pila eta metagailuak:

- Berunezko bateriak.
- Nikel eta kadmiozko bateriak.
- Merkuriozko pila lehorrak.
- Pila eta metagailuen elektrolitoak.

3. Hiri-hondakintzat (HH) hartzen ez direlako:

- Bere ezaugarri bereziengatik, bolumena, pisua eta abarrengatik, biltzea, garraiatzea, baloratzea edo ezabatzea eragotziko duen hondakina. Hondakin hauek behar bezala utziko dira zerbitzua kudeatzen duen organoak adierazitako lekuan.
- Edonolako pneumatikoak, pneumatiko-estalkiak, bateriak, metagailuak, industria prozesuetan sortutako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, hondarrak eta errautsak, koipeak, zumitzak, txirbilak, produktu korrosibo edo toxikoak dituzten edo izan dituzten bidoiak.
- Erabilitako olioak, koipe jangarriak ez badira behintzat. Horien artean daude, olio hidraulikoak eta erabilitako balazta-likidoak.
- Osasun- eta albaitaritza-zerbitzuetakoak edo ikerketa bateratutik sortutako hondakinak, martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak

arautzen dituenak edo etorkizunean hori ordezkatzeko duenak ezartzen duenarekin bat etorriz.

- Lantegi, tailer, biltegi eta industria instalazioetan sortutako hondakin, zepa eta errautsak.
 - Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Legearen eranskinean jasotako kutsatzailerak bat duten hondakinak. Hondakin hauek lege honek dionenaren arabera kudeatuko dira.
 - Erradioaktiboak.
4. Eskumena duen tokiko erakundeak bere izaeratik edo egoera bereziagatik horrelakotzat jotzen dituen hondakinak, hala nola:
- Hondeaketarako produktuak, hondarrak, lurrak, errauts industrialak eta obra publiko edo pribatuetan sortutako edozein obra-hondakin.
 - Etxeko ekipamendua, hondakin elektrikoak, gama gris, marroi eta zurikoak (telebistak, irratiak, ordenagailu pertsonalak, hozkailuak, garbigailuak...), koltxoak, sofak eta abar.
 - Obretan sortutakoak, obra-hondakinak, egurrak, leiho eta ateetako markoak, zokaloak, pertsianak, tronadurak, zoruak, moketak, bainuontziak, komun-ontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak.
 - Bidoiak, poto handiak, zumitzak, txirbilak, bizikletak, metalezko apalategiak, somierrak eta abar.
 - Erabiltzen ez diren eraikuntza eta saneamenduko aparailu eta elementuak.
 - Abeltzaintzako edo industriako ustiaketatik datozen hildako animaliak, kiroltarako ekidoak, eta aisialdi eta denbora-pasarako erabilitako beste batzuk.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiaketatik sortutako produktuak, hala nola, gorotza edo bestelako sustantzia naturalak.

- Artikulu honetan zehazki jaso gabeko bestelako hondakinak, baina beren izaera bereziagatik Hondakinak Biltzeko Zerbitzu normalak jasoko ez dituenak eta Udalak horrela erabakitzen duenean.
5. Era berean altzariak eta tamaina handiko elementuak jasotzeko udal zerbitzua ez dago honako elementuak jasotzera behartuta (altzari elementu eta bilgarriei dagokienez):
- Eraisketa, lur-jotze, etxeko altzari berri edo etxe-aldaketetatik sortutakoak.
 - Orokorrean altzariak edo etxetresna elektrikoak banatzen dituzten dendetan sortutakoak.
 - Etxeak eraberritzen dituzten gremioek sortutakoak.
6. Aurreko puntuan azaldutakoa alde batera utzita, eta interes orokorreko arrazoiekin behar bezala justifikatuta, Udalak hondakinen jabeak sortzen dituzten eta etxekoak ez diren hondakinak kudeatzera behartu ditzake.

9. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua

Apirilaren 21eko 10/1998 Legeak, hondakinei buruzkoak, dioenarekin bat etorritik, Zarauzko Udalak udalerrian sortu eta utzitako hiri-hondakinak kudeatzeko eskumena du. Beti ere, Ordenantza honetan jarritakoa jarraituz eta aipatutako legean ezarritako araudiaren barnean.

Udala, edo hala balegokio, horretarako eskumena duen erakundea, etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua eskaintzera behartuta dago, aipatutako legearen 4. artikulua dioenarekin bat etorritik.

10. artikulua. Zerbitzua ematea

Hauek dira zerbitzu honek eskainiko dituenak:

- Hondakinak adierazitako leku edo edukiontzietatik jaso eta hondakinak biltzeko ibilgailuan hustea.
- Edukiontziak hustu ondoren berriz ere bere lekuan uztea.

- Lan hori egiten ari diren bitartean bide publikora eroritako hondakin hondarrak jasotzea.
- Hondakinak horiek tratatzeko zentrorra garraiatu eta han hustea.
- Aldian behin edukiontzia garbitzea.

Udalak finkatuko du etxeko hondakinak (EH) biltzeko zerbitzua, bere modalitate guztietan, udalerraren interes orokorrarentzat egoki eta aproposena den modu, maiztasun eta ordutegiarekin.

Paperontziak husteko zerbitzua kale garbiketarako jarrita dituen zirkuituen arabera egingo da.

11. artikulua. Larrialdiak

Larrialdi kasuak gertatzen direnean (gizarte gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoerak) eta horien ondorioz zerbitzua eman ezin bada, eta Udalak aurrez jakinarazita, herritarrek ez dituzte hondakinak aterako zerbitzua normalizatu arte edo Udalak bidezko jarraibideak eman arte.

I. ATALA. Hondakinentzako edukiontzia

12. artikulua. Hiri-hondakinentzako edukiontzien antolaketa

Udaleko zerbitzuek erabakiko dute leku bakoitzean zein edukiontzi-mota erabili, zenbat jarri eta non kokatu.

Edukiontzia jabari publikokoak direnez, Udaleko zerbitzuek hondatu ahala edo zerbitzua eskaintzeko erabili ezin direnean berriak jarriko dituzte.

13. artikulua. Eraikin eta urbanizazio berriak egiten direnean baliabideak egokitzea eta edukiontzia jartzea

Hondakinak biltzeko sistemak horrela eskatzen duenean, Udalak etxebizitza, industrialde edo merkataritza guneen sustatzaileei eska diezaieke, urbanizazio

eta eraikuntza proiektuetan hondakinak biltzeko lurperatutako sistemak edo ezarritako beste edozein modalitate egokitzeko, bai eta dagozkion obrak bere kontura burutzeko ere.

14. artikulua. Pasabide eta leku erreserba bereziak

Udalak herrian pasabide eta leku erreserba bereziak ezarriko ditu, edukiontzia behar bezala kokatu eta zaintzeko eta zamalanak eta beharrezko beste operazioak egiteko. Beraz, debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea leku horietan eta zamalanak eragozten diren tokietan.

15. artikulua. Garbiketa

Udalak edo, hala badagokio, Hiri-hondakinak kudeatzeko enpresa esleipendunak aldian-aldian edukiontzia garbituko ditu, bai eta behar bereziak daudenean ere.

II. ATALA. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

16. artikulua. Hondakinen edukiontzia zaintzea

Erabiltzaileen betebeharra da edukiontzia behar bezala zaintzea higienari eta segurtasunari dagokienez. Eta edukiontzioak gaizki, arduragabe edo axolagabe erabili dituztelako kalteren bat eragingo balute, erantzukizuna erabiltzaileena izango litzateke. Betebehar bera ezartzen da babes-hesi edo barrrei eta bilketaguneetako marrei dagokienez.

17. artikulua. Eskubide eta betebeharrak

Etxebizitza, denda, biltegi, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria, establezimendu sanitario eta abar duen jabe edo erabiltzaile oro, derrigortuta dago hiri-hondakin solidoen bilketa zerbitzuaren udal tasa ordaintzera eta, ondorioz, udaleko Bilketa Zerbitzua erabiltzeko eskubidea du.

18. artikulua. Erabiltzeko arauak

- a) Erabiltzaileek hondakin solidoak, Udalak horretarako jarritako edukiontzi normalizatuen barnean utzi beharko dituzte.
- b) Hondakinak edukiontzien barruan sartuko dira eta edukiontzi mota bakoitzari ezarritako arautegi eta ordutegia errespetatuko da.
- c) Etxeko hondakinak (EH) hermetikoki itxitako plastikozko poltsetan utziko dira, inolako isurketarik gerta ez dadin. Zabor-poltsak gaizki itxita bota eta isurketarik gertatuko balitz, erabiltzailea bera izango litzateke eragindako zikinkeria erantzule.
- d) Erabiltzaileak edukiontzia itxi behar du.
- e) Erabiltzaileak edukiontzia beteta dagoela ikusten badu, ezingo ditu hondakinak edukiontzi horretan bertan edo bide publikoan utzi.
- f) Debekatuta dago hondakin likidoak edo isur daitezkeenak zaborraren poltsan sartzea, baita obra-hondakinak (eguneko 15 kg baino gehiago), altzariak, inausketak edo bestelakoak eta 8 artikuluan zerrendatutakoak botatzea ere.
- g) Debekatuta dago zaborrak bide publikoan manipulatzeko.
- h) Debekatuta dago, edukiontziak edo zaborrak biltzeko gunea funtzionalki edo estetikoki kaltetuko duen edozein jarduketara.
- i) Udal mugape osoan debekatuta dago hondakinak eta kudeaketa zaila duen edonolako hondakinen nahasketa edo diluzio uztea, isurtzea edo kontrolik gabe ezabatzea.

III. ATALA. Dendetatik, Industrietatik eta Erakundeetatik datozen Hondakin Asimilagarriak (DIEHA) direla-eta, hainbat jarduera, denda, bulego eta zerbitzuetarako arau bereziak.

19. artikulua. Jarduera bereziak

Beren jarduera ekonomikoagatik zerbitzuan aldaketak sor ditzaketen erabiltzaileentzat, zerbitzu hau erabiltzeko araudi berezia ezarri da. Derrigorrez bete beharko dute. Hauek dira jarduerak:

- A) Dendak orokorrean.
- B) Fruta-dendak
- C) Arrandegiak
- D) Harategiak
- E) Tabernak eta ostalaritza
- F) Industria orokorrean eta Industrialdeak

20. artikulua. Dendak orokorrean

1. Merkataritzako jardueraren ondorioz sortutako kartoizko enbalajeak ezin dira bide publikoan utzi ezta udalerrian dauden edukiontzietan ere.
2. Bere jarduera ekonomikoa dela-eta kartoizko kopuru handia sortzen duten merkataritzako establezimenduek, Udalaren aurrean hondakin horien kudeaketa justifikatu beharko dute edo bestela Urola Kosta Udal Elkarteak eskain dezakeen bilketa zerbitzua erabili.
3. Udalerrri honetan ireki behar den merkataritzako establezimendu orok, artikulua honetako 2. puntua bete beharko du, udalaren irekitzeko baimena lortu ahal izateko aurrebaldintza bezala.
4. Udalak kontrolatu eta zainduko du merkatariek baldintza hauek zuzen bete ditzaten. Betetzen ez badira dagokion zigor-espeditentari hasiera emango zaio.

21. artikulua. Fruta-dendak

1. Fruta-dendetan sortutako egurrezko, plastikozko edo kartoizko kaxak ezingo dira bide publikoan utzi ezta udalerrian dauden edukiontzietan ere.

2. Kaxa hauek horretarako egokitutako lekuetara eraman beharko dira edo horrelakorik ezean, ohiko hornitzaileari itzuli.

3. Fruta eta barazki hondarrak plastikozko poltsetan sartuta utziko dira, kaxa guztiak kenduta. Hondakin hauek edukiontzi gris edo marroietan bakarrik utzi ahal izango dira.

4. Udalak kontrolatu eta zainduko du fruta-dendek baldintza hauek zuzen bete ditzaten. Betetzen ez badira dagokion zigor-espedienteari hasiera emango zaio.

22. artikulua. Arrandegiak

1. Edonolako arrain, marisko eta izozkien zaborrak erakunde kudeatzaileak horretarako jarritako edukiontzi edo bestelako ontzietan bakarrik utzi ahal izango dituzte eta beti ondo itxitako poltsetan.

2. Arrain-kaxak edukiontzi berezietan bakarrik utzi ahal izango dira. Edukiontzi horiek behar bezala identifikatuta daude udalerriko hainbat tokitan.

3. Erabat debekatuta dago arraina birrintzeko makinak jartzea. Gaur egun horrelako makinak dituzten arrandegiek kendu egin beharko dituzte Ordenantza hau onartzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

4. Udalerrian irekiko diren arrandegi berri guztiek artikulua honetako aurreko puntuetan jarritakoak bete beharko dituzte.

5. Udalak kontrolatu eta zainduko du arrandegiek baldintza hauek zuzen bete ditzaten. Betetzen ez badira dagokion zigor-espedienteari hasiera emango zaio.

23. artikulua. Harategiak

1.- Jardueraren berezko hondakin organikoak, arriskuko material bezala sailkatutakoak izan ezik (221/2001 ED), itxitako plastikozko poltsetan utziko dira, establezimendutik hurbilen dagoen hiri-hondakinen edukiontzian.

2.- Udalak kontrolatu eta zainduko du harategiek baldintza hauek zuzen bete ditzaten. Betetzen ez badira dagokion zigor-espeditari hasiera emango zaio.

24. artikulua. Tabernak eta ostalaritza

1. Derrigorrezkoa da beira eta kartoizko ontziak bereizi eta gaikako bilketarako edukiontzietan uztea. Beraz, debekatuta dago hondakin horiek etxeko hondakinetarako edukiontzietan uztea.

2. Taberna, jatetxe, hotel eta antzekoek beirazko ontziak eta kartoizko kaxak erakunde kudeatzaileak horretarako jarritako edukiontzietan bakarrik utzi ahal izango dituzte, ordenantza honetako 31-32 artikuluetan ezarritako baldintzetan. Urola Kostako Udal Elkarteak, horrela eskatzen duten establezimenduei, beharrezkoa dela uste bada, edukiontzi berezia jarriko die, ontziki horiek dagokien iglu edo edukiontzira eramateko.

3. Beren jarduera dela-eta landare-olio hondakinak sortzen dituzten taberna, jatetxe, hotel eta antzekoek, baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatu beharko dituzte. Kudeaketa hau finkatuta eta Udalean aurkeztuta egongo da Ordenantza hau onartzen denetik hiru hilabeteko epean.

4. Udalerrian irekiko diren taberna, jatetxe edo ostalaritzan aritzeko establezimendu berri guztiek, jardueraren berezko hondakinak justifikatu beharko dituzte (artikulu honetako aurreko puntuak), irekitzeko baimena lortzeko aurrebaldintza bezala.

5. Udalak kontrolatu eta zainduko du establezimendu mota honek baldintza hauek zuzen bete ditzaten. Betetzen ez badira dagokion zigor-espeditari hasiera emango zaio.

25. artikulua. Industrialdeak

1. Enpresek sortutako hondakinak, Etxeko Hondakin moduan (EH) sailkatutakoak, Udalak edo Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko ditu, horiek jaso eta garraiatzeko enpresa bakoitzarekin finkatutako maiztasun eta baldintza berezietan eta dagokion tasa ordainduta.

- Enpresek sortutako hondakinak, Hondakin Industrial Asimilagarri moduan sailkatutakoak (DIEHA), Udal Elkartearena edo Udalarena ez den enpresa batek kudeatu ditzake, baldin hondakinen jabeek kudeaketa baimendutako kudeatzaile batek egiten duela behar bezala justifikatzen badute.

2. Enpresa guztiek, bai industrialdeetan bai udalerrian sakabanatuta daudenek, jarduera industrialak sortutako hondakinak kudeatu behar dituzte, Urola Kostako Udal Elkarteak horiek kudeatzeko eskumena bere gain hartu bitartean. Kudeaketa hori uneoro Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak dioenarekin bat etorri egingo da.

3. Hondakin horiek Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko ditu, eskumenak bere gain hartzen dituenetik aurrera. Egun horretatik aurrera Udal Elkarteak horretarako izango duen "Industrialdeetako Hondakinak Biltzeko Ordenantzak" ezarritakoa uneoro bete beharko dute, eta dagozkien tasak ordaindu beharko dituzte.

4. Hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa honekin bat etorri egingo da: 833/1988 Errege Dekretua, uztailearen 20koa, maiatzaren 14ko Hondakin Toxikoen eta Arriskutsuen oinarritzko 20/1986 Legeak (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuak aldatutakoa) zioena aurrera eramateko araudia onartzekoa.

5. Hiri hondakinen eta hondakin industrial inerte eta toxikoak kudeatzeko dokumentazioak Udalaren esku egon behar du, honek eskatzen duen guztietan.

II. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

I. ATALA. Gaikako bilketa

26. artikulua. Helburuak

Apirilaren 24ko 11/1997 Legeak, ontziki eta ontzikien hondakinei buruzkoak, apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuak garatutakoak eta apirilaren 21eko 10/1998 Legeak, hondakinei buruzkoak, honako helburuak ezartzen dituzte: hondakinen berrerabilera eta berreskurapena sustatzea eta prebentzio politika eraginkorren beharra, hondakinei probetxu ateratzeko eta energia baliabideak eta lehengaiak optimizatzeke.

27. artikulua. Betebeharrak

Aurreko artikuluan ezarritakoari dagokionez, Udalak bere eraginpean gaikako bilketa zerbitzua dauka. Eta erabiltzaileek bestelako probetxuak izan ditzaketen hondakinak edo banakako bilketa berezia egiteko egoki iritzitakoak, banakatuta edo ontzi berezietan utzi beharko dituzte.

Hondakin berezi hauek dagokien edukiontzietan sartuko dira, gero birziklatzeko, baldin eta barruan horretarako tokirik badago. Debekatuta dago bide publikoan edo bestelako hondakinentzako edukiontziren batean uztea.

28. artikulua. Edukiontzi motak

1. Urdina: bereziki etxean sortzen diren paper eta tamaina txikiko kartoiak jasotzeko.

Ez dira hemen sartuko merkataritzako establezimenduetan eta enpresetan sortutako paper eta kartoia ezta paper plastifikatu, metalizatu edo argizaria dutenak ere.

2. Berde argia: bereziki beirazko ontzikiak jasotzeko, kortxo eta tapoiak kenduta.

Ez dira hemen sartuko lanpara, bonbilla eta fluoreszenteak eta beira laua (adibidez, ispilu, plater eta antzekoak).

3. Horia: plastikozko eta metalezko ontziak, poltsa eta plastikozko bilgarriak eta brikak jasotzeko.

4. Edukiontzi hori txikia: botoi-pilak eta pila normalak jasotzeko.

5. Berde iluna: etxeko hondakinak, gaika berezi gabekoak pilatzeko edukiontzi arrunta. Ez dira botako Ordenantza honetako 8. artikuluan baztertutako gaiak.

- Jostailuak, biberioak, plastikozko goanteak, orraziak, hortzetako eskuilak, kazolak, zartaginak eta gainerako etxeko tresnak bezalako elementuak, eta orokorrean analogiaz berreskuratu ezinezko bezala defini daitezkeenak, hondakin organiko edo orokortzat hartuko dira. Hondakin hauek puntu

honetan aipatutako etxeko hondakinen edukiontzi berde ilunetan bota behar dira.

6. Zuria: bereziki ehunak, janzteko arropa, ohe-estalkiak eta horrelakoak bakarrik jasotzeko.

7. Grisa edo marroia: hartzitu daitekeen materia organikoa, gordina, gaika biltzeko. Adibidez, etxeko, merkatuko, jangeletako eta abarretako barazki hondarrak.

8. Zabor-ontziak: tamaina txikiko hondakin solidoak biltzeko. Hala nola, goxoki-paper, txikle, fruitu-azal, itzalitako zigarro-mutur, jateko produktuen poltsa eta antzekoak.

29. artikulua. Gerora edukiontziak aldatzen badira

Udalak, edo erakunde kudeatzaile eskudunak, beste edukiontzi modelo batzuk edo hondakin mota bakoitza biltzeko beste ontzi normalizatu batzuk erabiltzea erabakitzen badu, modelo berri horiek aurreko zerrendari gehituko zaizkio eta bere funtzioa adieraziko da, Ordenantza hau aldatzeko beharrik gabe. Honela bilketa zerbitzua ahalik eta baldintza egokienetan egingo da, hondakinen izaerarekin, edukiontzi berria jarriko den sektorearen edo bide publikoaren ezaugarriekin eta hondakinak biltzeko eta garraiatzeko egindako plangintzarekin bat etorritik.

30. artikulua. Hondakinak uzteko ordutegia

Edukiontzi urdin, hori eta zurietan edozein ordutan utz daiteke zaborra.

Beira biltzeko edukiontzi berde argietan, zaborra egunez utziko da, 8:00etatik 22:00ak arte.

Etxeko hondakinak biltzeko edukiontzi berde ilunetan, zaborra 19:00etatik 22:00etara utziko da.

Materia organikoa bakarrik jasotzeko edukiontzi gris edo marroietan, zaborra 19:00etatik 22:00etara utziko da.

Fruta-denda, arrandegi eta harategiek zaborra biltzeko ordutegi berezia izango dute. Ordutegi hori Udal Zerbitzu Teknikoek jarriko dute eta jartzerakoan kontuan izango dira denda non dagoen, merkatua ixteko ordua, sortutako zabor kopurua eta zerbitzuaren beharrak.

Ordutegi honetan jarritako orduak alda daitezke, bilketa zerbitzuaren edo interes orokorraren izenean. Horretarako Alkatetzaren Bandoa aterako da, eta honek ordutegi horiek arautu eta finkatuko ditu, Ordenantza hau aldatu beharrik gabe.

31. artikulua. Edukiontzi urdina. Paper eta kartoiaaren banakako bilketa.

Bereziki papera eta kartoia jasotzeko edukiontzi urdina erabiltzeko arauak:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek papera eta kartoia Ordenantza honetako 28-1 artikuluan zehaztutako edukiontzietan utzi beharko dute.
2. Kaxak desmuntatu eta tolestu egin behar dira eta kartoia zatitu, gero edukiontzietan sartzeko. Horrela edukiontzia ez da gaizki erabiltzeagatik beteko.
3. Merkataritzako jardueran sortutako paper eta kartoien bilketa Ordenantza honetako 20 artikuluan arautu da.

32. artikulua. Edukiontzi berde argia. Beira bakarrik biltzekoa

Beirazko ontzikiak bakarrik biltzeko edukiontzi berdeak erabiltzeko arauak:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek beirazko ontzikiak Ordenantza honetako 28.2 artikuluan zehaztutako edukiontzietan utzi beharko dituzte.
2. Ostalaritzako jardueratik sortutako beirazko ontzikien bilketa Ordenantza honetako 24 artikuluan arautu du.

33. artikulua. Edukiontzi horia. Ontzikiak bakarrik biltzekoa

Ontzikiak bakarrik biltzeko edukiontziak erabiltzeko arauak:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek ontzikiak Ordenantza honetako 28.3 artikuluan zehaztutako edukiontzietan utzi beharko dituzte.
2. Etxean sortutako eta 28.3 artikuluan zehaztutako edonolako ontzikiak utziko dira.

34. artikulua. Edukiontzi hori txikia, pilak jasotzekoa

1. Pila normalak eta botoi-pilak udalerrian horrelakoak jasotzeko bereziki jarritako edukiontzietan botako dira.
2. Edukiontzi hauek ongi bereizitako bi zulo dituzte. Batean botoi-pilak botako dira eta bestean gainerako pilak.

35. artikulua. Edukiontzi zuria: arropa, ehuna eta zapiak biltzekoa.

Etxean sortutako ehunak biltzekoa. Erabiltzaileek hondakin hauek (bai janzteko bai etxeko arropa) edukiontziaren tiraderan sartu beharko dituzte, ongi itxitako poltsetan.

1. Debekatuta dago arropa edo oihal zikin edo likidotan bustitakoak botatzea, bai eta adierazitakoa ez den bestelakorik botatzea ere.
2. Debekatuta dago barruan utzitako produktuak ateratzea, bilketa zerbitzuko pertsonak izan ezik.

36. artikulua. Edukiontzi gris edo marroia. Materia organikoa biltzekoa.

Barazki freskoen hondakin organikoak biltzekoa.

1. Debekatuta dago prestatutako janarien hondakinak eta abar botatzea.
2. Produktu freskoak, bestelako materiekin nahastu gabeak, itxitako poltsetan utziko dira.

II. ATALA. Etxeko altzari eta tresnen bilketa

37. artikulua. Zerbitzu bereziak

Zarauzko Udalak etxeko altzari eta tresnak jasotzeko zerbitzu berezia izango du.

Ezingo dute zerbitzu hau erabili egur edo altzariekin lotutako gremioek ez eta etxe-aldaketako eta etxeak eraberritzeko enpresek ere.

38. artikulua. Bilketa zerbitzuaren salbuespenak

1. Zerbitzu honek etxeko tresna eta altzari mota guztiak bilduko ditu. Hala ere, ez dira jasoko hondakinak biltzeko garabi, polea eta abar bezalako baliabide mekanikoak behar dituztenak edo berehala garraiatzeko prest ez daudenak edo etxe-aldaketetatik edo eraispenetatik datozenak, hondakin kopuru handiak baldin badira.

2. Bilketa mota hau Udalak finkatutako egunean egingo da eta herritar guztiak erabili ahal izango dute.

3. Altzariak finkatutako lekuetan utzi beharko dira, bilketa-egunaren bezperan, hondakinak uzteko ordutegiarekin bat etorriz, edukiontzi berde ilunaren ondoan baina gainean jarri gabe, hustuketa ez eragozteko moduan. Aurrez telefonoz deitu beharko da eta udal zerbitzuei ohartaraziko zaie zenbat eta nolako altzariak izango diren eta zein zonatan utziko diren.

4. Debekatuta dago etxetresnak Udaleko zerbitzuek jarritako egun eta ordutegietatik kanpo uztea. Era berean, ezingo dira honelako hondakinak bide publikoan edo orube edo lursail pribatu zein publikotan utzi.

5. Udalak kontrolatu eta zainduko du zerbitzu hau zuzen eta egoki bete dadin. Artikulu honetako puntuetakoren bat betetzen ez bada, arau-hausleari dagokion zigor-espeditatea irekiko zaio.

III. ATALA. Hiri-hondakinen kategorian sartzen ez diren hondakinen bilketa berezia.

39. artikulua. Hondakin bereziak

Hauek etxebizitza partikularretan sortutako hondakin bereziak dira baina hiri-hondakinen kategorian sartzen ez direnak:

1) Hondakin elektrikoak

- Linea gris eta marroiko etxetresna elektrikoak: telebistak, irratiak, bideo-kamerak, CDak, goi-fidelitateko kateak, ordenagailu pertsonalak, inprimagailuak eta informatikako ekipoa, telefono mugikorrek, xurgagailuak, plantxak eta abar.
- Linea zuriko etxetresna elektrikoak: garbigailuak, hozkailuak, ontzi-garbigailuak eta abar.

2) Hondakin arriskutsuak

- Hodi fluoreszenteak, lanparak, aerosolak, pintura potoak, bernizak, disolbatzaileak, bateriak, automozioko olioak...

3) Metalezko txatarra

- Somierrak, bizikletak, metalezko apalategiak edo apalak...

4) Bestelakoak

- Obra-hondakin, egur, kartoi, automozioko eta etxeko olio kopuru txikiak.

Aurreko hondakin hauek guztiak Urola Kostako Udal Elkarteak herritar guztien eskura jarritako hondakinak gaika biltzeko zerbitzuan utzi behar dira, Abendañoako industrialdean duen Garbigunean.

40. artikulua. Landare olioak

Sukaldean erabilitako landare olioak beirazko, metalezko edo brik erako ontzietan jaso behar da eta gero Udal Elkarteak jarritako kalez kaleko

ibilgailuan utziko da, herrian batetik bestera ibiltzeko jarritako egun eta lekuetan. Zerbitzu hau Abendaño Garbigunean ere eskaintzen da.

1. Zarautzen bilketa mota hau Udalak edo Udal Elkarteak adierazitako egunetan egingo da, eta dagokionak jarriko ditu bilketa hori egiteko leku egokiak.
2. Debekatuta dago honelako hondakinak Hiri-hondakinen edukiontzietan uztea edo hustubideetatik isurtzea.
3. Ostalaritzako jardueran sortutako landare olio erabilia, Ordenantza honetako 24 artikulua arautuko du.

IV. ATALA. Bide publikoan bertan behera utzitako ibilgailuen bilketa

41. artikulua. Bertan behera utzitako ibilgailuak

1. Debekatuta dago erabiltzen ez diren ibilgailuak erabilera orokorreko eta Udalaren zaintza duten bide publikoetan edo guneeetan uztea.

Ibilgailuaren azken jabea behartuta dago ibilgailu hori balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak tratatzeko baimendutako instalazioetara eramatera.

2. Ibilgailua bertan behera utzita dagoela ulertuko da baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Eskumena duen agintaritzak ibilgailu bat bide publikotik erretiratu eta udal gordailuan gorde duenetik bi hilabete baino gehiago igaro direnean.
- b) Leku berean aparkatuta hilabete baino gehiago daramanean, eta hondatuta izatearen ondorioz, ibilgailua leku batetik bestera laguntzarik gabe mugitzea ezinezkoa denean edo matrikulazio-plakarik ez duenean.

Kasu honetan hondakin arriskutsutzat hartuko dira eta "balio-bizitzaren amaierako ibilgailu" moduan tratatuko dira, horretarako jarrita dagoen araudiarekin bat etorritik.

a) ataleko kasuetan, eta abandonu itxura izan arren matrikulazio-plaka aldean duten ibilgailuei dagokienez, eta edonolako marka edo zeinuren bidez titularra identifika badaiteke, titularrari jakinaraziko zaio, dagozkion epeak amaitu eta gero, 15 egun dituela ibilgailua erretiratzeko, eta hala egiten ez badu, hondakin arriskutsutzat hartuko da eta balio-bizitzaren amaierako ibilgailuen kudeaketa arautzen duen araudiarekin bat etorritz tratatuko da.

3. Ez dira ibilgailu abandonatu bezala sailkatuko, geldirik egoteko agindu judiziala duten ibilgailuak, baldin eta Udalak agindu hau ezagutzen badu. Udal agintaritzak hiri higieena zaintzeko neurriak hartu ditzake.

4. Ibilgailuak hondakintzat hartzeko eta horiek erretiratzeko espedienteak honakoetan jasotakoarekin bat etorritz izapidetuko dira: Abenduaren 20ko 1383/2002 Errege Dekretua, balio-bizitzaren amaierako ibilgailuen kudeaketari buruzkoa eta Barne Ministerioaren 249/2004 Agindua, balio-bizitzaren amaieran deskontaminatutako ibilgailuen baja arautzen duena.

5. Aurreko kasuak gertatzen direnean, jarri daitezkeen zigorrei kalterik egin gabe, ibilgailua erretiratzean eta gordetzean izandako gastuak edo Udalaren bestelako esku-hartzeen ondorioz izandakoak ibilgailuaren jabeak ordainduko ditu, eta gastu horiek kobratzeko premiamendura jo daiteke.

V. ATALA. Obra handi eta txikietan sortutako hondakinak

42. artikulua.

Guztiz debekatuta dago edonolako obra-hondakinak kaleetan uztea. Hondakin hori sortu duenak, baimendutako lekuan utzi beharko du.

43.artikulua

Obretako lur eta hondakinekin batera ezingo da usteldu edo desegin daitezkeen materialik edo hirugarrengoei, ingurumenari edo higie-ne publikoari kalte egin diezaiokeen ezer sartu.

44. artikulua

Obretako lurrak eta hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek, edukia ez isurtzeko eta gurpilek hondakin arrastorik ez uzteko beharrezko baldintzak beteko dituzte, bide publikoa zikin ez dadin.

Bide publikoan likidoak isurtzen dituzten ibilgailuak, likido hori jaso eta garbitzeaz ibilgailuaren arduradunak arduratuko dira eta bide publikoak segurtasun eta higiene baldintza egokietan utzi beharko dira.

Artikulu hau ez betetzeak, dagokion zigor-espedienteari hasiera ematea ekarriko du.

III. TITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

45. artikulua. Sarrera

Ordenantza hau hausten duenak izan ditzakeen erantzukizun zibil eta penalak alde batera utzita, udaleko zigor araubidea ezarri da, hurrengo artikuluetan tipifikatutako arau-hausteekin bat etorriz.

46. artikulua. Prozedura

Testu honetan jasotako arauak ez betetzearen ondorioz erantzun beharrean dauden pertsona fisiko edo juridikoak zigortu ahal izango dira. Aurrez jarraitu beharreko prozedura honakoekin bat etorriz egingo da: otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa eta apirilaren 21eko 10/1998 Legea, hondakinei buruzkoa.

47. artikulua. Zigortzeko gaitasuna

Alkate-lehendakariak izango du zigorrak jartzeko eskumena edo bestela eskuordetzan emanaz gero, zinegotzi batek edo Tokiko Gobernu Batzarrak.

48. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak

1. Aurreko xedapenen arau-hausteen erantzule izango dira honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak:

Araudi honen arau-hauste izan daitekeen edozein jarduketa zuzenean egiten duena, bere kabuz edo dagokion enpresaren ordezkari edo arduradun moduan.

Aipatutako lehen erantzule horiek egindako jarduketetan, araudi hau betearaztea aurreikusi eta eskatzeko legezko betebeharrak organikoak betetzen ez duena.

2. Aurreko atalean jarritakoa alde batera utzita, erantzukizuna solidarioa izango da honako kasuetan:

Hondakinen edukitzaileak edo kudeatzaileak hondakin horiek legez baimendu gabeko beste pertsona fisiko edo juridikoari ematen dizkionean.

Erantzuleak asko direnean eta arau-hauste horretan bakoitzak duen partaidetza maila zehaztea ezinezkoa denean.

49. artikulua. Hondakinen erantzukizuna duen titularra

Hondakinek beti erantzukizuna duen titularra izango dute eta, kasuak kasu, ekoizlea, edukitzailea edo horien kudeatzailea izango da. Kontuan hartzekoa da horien artetik administrazioaren erantzukizunetik salbuetsita daudela, hondakinak Udalari edo Urola Kosta Udal Elkarteari eman dizkiotenak (dagozkion ordenantza eta gainerako araudiekin bat etorriz) edo hondakinak baimendutako kudeatzaileen esku utzi dituztenak, hondakinak legez kudeatzeko operazioak egiteko (horiek ematearekin batera lege betebeharrak eta arauak bete badira). Emate hori dokumentu fede-emaile bitartez jaso beharko da.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

50. artikulua. Lege tipifikazioa

Kapitulu honetan arau-haustek eta Toki Erakundeak horiek zigortzeko duen eskumena arautzen dira, apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.3.b-rekin lotutako 37.2 artikulua dionarekin bat etorriz. Artikulu horien arabera alkateak honako arau-hauste larria egiteagatik 601 €-tik 30.050,61 €-ra bitarteko isuna jar dezake: "arriskutsua ez den edonolako hondakin utzi, isuri edo ezabatzea, horrek ingurumenean kalte edo hondatze larririk eragin ez badu ere edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri gabe ere".

51. artikulua. Arau-hauste motak

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira honako artikuluekin bat etorriz:

52. artikulua. Arau-hauste arinak

1. Edonolako hondakinak bide publikoan uztea, edukiontzietatik edo horretarako adierazitako lekutik edo jarritako ordutegitik kanpo.
2. Hondakinak poltsa desegoki edo gaizki itxitakoetan uztea.
3. Hondakin likidoak dituzten poltsak uztea.
4. Edukiontzietako zaborra manipulatzeari.
5. Hondakinak poltsetan sartu gabe botatzea.
6. Hondakinak gaika biltzeko edukiontzietan okerreko hondakinak botatzea.
7. Hiri hondakin solidoen edukiontzietan gaikako bilketa sistemako hondakinak sartzea.
8. Edukiontzi urdinetan kartoia tolestu edo zatitu gabe sartzea.
9. Pilak horrelakoak biltzeko ez diren edukiontzietan uztea.
10. Denda, ezkaratz, eskailera eta abar garbitu ondorengo hondakin likidoak estolderian botatzea.

53. artikulua. Arau-hauste larriak

1. Bilketa-zerbitzuaren erabiltzaileek, inolako arrazoi justifikaturik gabe, beraiek sortutako etxeko hondakin solidoak Udalaren esku ez uztea.
2. Edukiontzien funtzionalitate edo estetikari kalteak eragitea.
3. Hondakinaren zamaketa-lanak eta garraioa oztopatzea.
4. Udaleko ikuskaketa eta kontrolak eragozteak.
5. Hondakinak desagerrarazteko estolderia-sarea erabiltzea, eta txikitutako arrain, fruta, garbiketara....botatzea.

6. Hondakinak erretzea.
7. Beharrezkoak diren ikuskapenak eta egiaztapenak eragozte.
8. Hondakin organikoak lur eta obra-hondakinekin nahastea.
9. Ondo utzitako hiri-hondakinak bere lekutik ateratzea.
10. Urtebetean bi arau-hauste arin egitea.
11. Bide publikoa zikintzea.

54. artikulua. Arau-hauste oso larriak

1. HHak zehaztutako lekuetatik kanpo uztea, kontrolik gabeko isurketa-guneak sortuz.
2. Hondakin toxiko eta arriskutsuak (HTA) edukiontzietan uztea edo etxeoekin nahastea.
3. Hondakin erradioaktiboak edukiontzietan uztea.
4. Asimilagarriak ez diren hondakin klinikoak edukiontzietan uztea.
5. Bide publikoan tresnak eta altzariak uztea, zerbitzuak jarrita duen egun eta ordutik kanpo eta aurrez ohartarazi gabe.
6. Arriskutsu edo toxiko izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ukatzea.
7. Etxeko bilketa zerbitzutik kanpo dauden hondakinak (8. artikuluan zehaztutakoak) edukiontzietan uztea.
8. Hondakinak erretzea terreno publiko zein pribatuan.
9. Hildako animaliak bide publikoan lagatzea.
10. Urtebetean bi arau-hauste larri egitea.

III KAPITULUA. ZIGORRAK

55. artikulua. Zigorrak

Ordenantza honetako artikuluren batean aurreikusitako arau-haustek egiten badira, honako zigorrek ezarri ahal izango dira:

1. Arau-hauste arinak:

- Ohartarazpena.
- 60,10 € bitarteko isuna.

2. Arau-hauste larriak:

- 60,11 €-tik 450,76 €-ra bitarteko isuna.

3. Arau-hauste oso larriak:

- 450,77 €-tik 30.050,61 €-ra bitarteko isuna.

56. artikulua. Zigorrek ezartzea

Zigorrek ezartzeko kontuan izango dira erantzulearen egoera, bere erru-maila, behin baino gehiagotan errepikatzea, parte-hartzea eta lortutako onura.

57. artikulua. Jarduketa osagarria

Arau-hausleak behartuta daude utzitako hondakinak jasotzera eta zikindutako ingurua garbitzera, ezar dakizkiekeen zigorrek kontuan hartu gabe.

58. artikulua. Eskumena

Udaltzaingoa arduratuko da Ordenantza honetan xedatutakoa betetzeaz.

59. artikulua. Zigorrak

Zigor-prozedura ofizioz hasiko da, edo aldeetako batek hala eskatuta eta dagokion salaketa jarrita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi gabeko kasu guztietan apirilaren 21eko hondakinei buruzko 10/1998 Legeak eta aplika daitezkeen gainerako araudiek diotenarekin bat etorritz jokatu da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera balio edo indarririk gabe geratuko dira ezarrita dauden eta ordenantza honen aurka doazen maila bereko edo gutxiagoko xedapen, erregelamendu edo ordenantzak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartzen denean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen denetik hamabost egun pasata.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2005eko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran onetsi zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2005eko apirilaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen testu osoa 2005eko uztailaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (zk. 130) argitaratu zela, eta 2005eko uztailaren 30ean sartu zela indarrean.

Zarautzen, 2005eko abuztuaren 1ean
Idazkaria